

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bestea errespetatzen



Xabier Etxaniz Erle

Arraroa horixe da liburuaren azalean ageri den neskato horrek esaten digun lehen hitza: "Arraroa egiten zait lehenengo pisuko bizi-lagunaren leihoan peluka hori bat zintzilik ikustea beti". Eta, hain zuzen, horixe da neska horrek begiratzean lehenengo pisuko leiho parean zintzilik ikusten dena, kulero bat, galtzerdi bat eta tantak darizkiola dagoen aipaturiko peluka horia.

"Amak dio hori baino arraragoa dela, Zubizarretarrek biluzik daudela zintzilikatzen dutela arropa" diosku ondoren gure kontalari finak. Eta irudian Zubizarreta familiako kideak ikus ditzakegu biluzik etxean (aita arropa zintzilikatzen, ama sofan egunkaria irakurtzen, semea sofan amaren ondoan, alabak... Eta horrela etxeko auzokoen arrarotasunak agertzen joango zaizkigu, amona ez dela etxetik ateratzen, guraso begetarianoak dituen mutikoa beti dagoela txorizo-ogitartekoak jaten, Jennaren amak euskarazko etxeko lanetan laguntzen duela... eta komentario horien ondoan informazioa osatzen duen irudia dugu (Jennaren ama beltza eta musulmana dela ikusiko dugu, esaterako, edo narratzailearen amona ohean dagoela, gaixorik, medikatuta baina, hala eta guztiz ere, jolasteko gogo biziz).

Arraroa album honek XI. Etxepare saria irabazi berri du eta, egia esan, pozgarria da sariketa honek euskal kulturari egiten dion ekarpena. Oraingo honetan, esaterako, oso obra berritzailea ekarri digula esango nuke. Ez bakarrik testuaren

Arraroa


AINARA AZPIAZU

Ilustratzailea: Paula Estévez

Pamiela, 2017

32 orrialde

Haurrentzat



Ainara Azpiazu Aduriz (*Hernani*, 1980) ilustratzailea da '*Arraroa*' albumaren testuaren egilea.

ARGAZKIA: DANI BLANCO



eta irudien aldetik (kolore bizi eta oso ongi markaturiko formekin, informazio zehatza eta argia emanez) baita tratatzen duen gaiagatik ere. Gai asko direla esango

genuke (auzoko bakoitzak bere izaera bitxia, ezberdina, besteengandiko ezberdina daukala esango genuke) baina guztien gaitetik bat nabarmentzen da,

onarpenarena, besteekiko errespetua.

Gizakion askatasunaren aldeko lana da *Arraroa* hau; izan zaitez zeu, eta onar itzazu besteak diren bezalakoak.

Arraro hitzarekin ekiten dio narratzaileak kontakizunari, eta horixe da liburuan zehar gehien errepikatzen den hitza, bai eta liburuari amaiera ematen diona. Oraingoan, baina guztiz bestelako zentzua izango duen esanahiarekin, arrarotasunen kontrako mezuarekin: "Denetan arraroen da, niri, geroz eta gauza gutxiago iruditzen zaizkidala arraro". ■